

ELIKAGAIEN BIDAIA-EGUNKARIA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU BEHARREKOA	1 GUTXIEGI
Elikagaien hautaketa	Hautatutako elikagaiek mantenugai egokiak dituzte eta proportzio osasungarrietan, eta hautatzeko zer irizpide erabili diren argi eta garbi azaltzen da.	Hautatutako elikagaiek mantenugai egokiak dituzte eta proportzio osasungarrietan, baina ez da argi azaltzen zer irizpide erabili diren elikagaiak hautatzeko.	Hautatutako elikagaiek mantenugai egoki batzuk dituzte, batzuk bakarrik, gainera, proportzio osasungarrietan, eta ez da argi azaltzen zer irizpide erabili diren elikagaiak hautatzeko.	Hautatutako elikagaiek ez dute mantenugai egokirik, eta ez dituzte proportzio egokietan. Ez da azaltzen zer irizpide erabili diren elikagaiak hautatzeko.
Digestio-sistemaren atalak eta prozesuak	Behar bezala deskribatzen dira digestio-sistemaren anatomia eta fisiologia, eta ondo erantzun zaie planteatutako galderari.	Behar bezala deskribatzen dira digestio-sistemaren anatomia eta fisiologia, eta planteatutako galdera gehienari erantzun zaie.	Digestio-sistemaren anatomia eta fisiologia deskribatzen dira, eta azaletik erantzun zaie planteatutako galderari.	Azaletik deskribatzen dira digestio-sistemaren anatomia eta fisiologia, eta ez zaie erantzun planteatutako galdera gehienari.
Erantzunen zehaztasuna eta koherentzia	Zuzen eta koherentziaz erabili du terminologia zientifikoa erantzun guztietan	Zuzen eta koherentziaz erabili du terminologia zientifikoa erantzun gehienetan.	Zuzen eta koherentziaz erabili du terminologia zientifikoa erantzun batzuetan.	Ez du zuzen eta koherentziaz erabili terminologia zientifikoa.
Ekarpenak pertsonalak	Egiten ditu ekarpen pertsonalak, testu-azalpenen bidez, irudien bidez eta web-esteken bidez.	Egiten ditu ekarpen pertsonalak, testu-azalpenen bidez eta irudien bidez.	Egiten ditu ekarpen pertsonal batzuk, testu-azalpenen bidez.	Ez du ekarpen pertsonalik egiten.

